

BEÑAT UNANUE SARASOLA

D Maila | Bertsoa | 2. saria

Kaixo, Ni Beñat Unanue naiz eta 12 urte dauzkat. Zaldibitarra naiz eta betidanik gustatu izan zait bertsoak entzutea. Bertsolari gogoko asko ditut: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Iker Zubeldia, Unai Agirre, Nerea Ibarzabal, Joanes Illarregi... Beste zaletasun batzuk ere badauzkat: kirolak orokorrean, marraztea, eskulanak egitea (egurrarekin), lagunekin egotea eta abar. Oianguren institutuko (Ordizia) DBH 1eko ikaslea naiz. Bertan proposatu didate parte hartzeko eta bigarren saria lortzeko asko poztu nau!



AITTONA PEDRORI BERTSOAK

Aittona, zuri bertsoak idatziz
pasatu det nik hesia,
hil zinenean sartu zitzaidan
nei bihotzean gezia,
norbaiti tokau behar zitzaien,
hortxe zegon minbizia,
zuri halaxe tokau zitzazun
nahiz etzendun merezia
hirurogeita zortzi urtekin
galdu zenuen bizia.

Zure ondoan bizitakoa
neretzat motxa izan da,

momentu gehio partekatzea
gustatuko zitzaidan ba,
hil egin zinen, bai, aze pena
hurrengoi emanda txanda,
zurekin oso goxo egoten
nintzen egia esanda,
pentsa nola lo egiten nuen
zuri eskua emanda.

Zure argazkiak begiratuta
aze oroitzapen pila,
kotxe konponzen ibili zinen
mekanikari abila,
gizon jatorra eta bixkorra
txikia eta umila,
zure ondoan ez zen izaten
ez buila, ez iskanbila,
ta ze gustora joaten zinen
Aralarra onddo bila.

Aittona Pedroi bertsok ittea
atea zait bihotzetik,
bihurrie ta oso jatorra
eta bertsok horregatik.

Ondo moldatu ginen, ederki,
ni txikie nintzenetik,
ta zortzi urte pasa zaizkigu
ia joan zinenetik,
eskerrik asko, aittona Pedro,
emandako denagatik!